



*Compliance* Penalari buruzko Korporazio-  
politikaren Printzipio Orokorrak

[2023ko iraila]

## Edukia

1. Sarrera
  - 1.1 Aurrekariak
  - 1.2 Irismena
  - 1.3 Helburua
2. Aplikazio-eremua
3. Arau-esparrua. Araudi eta estandar aplikagarriak
4. Arrisku penalaren kudeaketaren printzipio orokorrak
5. Prebentzio Penaleko Eredua

## 1. Sarrera

### 1.1 Aurrekariak

2010eko ekainaren 23an argitaratu zen Estatuko Buletin Ofizialean 5/2010 Lege Organikoa, 10/1995 Lege Organikoa, Zigor Kodeari buruzkoa, aldatzen zuena. 2010eko abenduaren 23an sartu zen indarrean. Erreforma horrek pertsona juridikoen erantzukizuna sartu zuen zigor-arloko jurisdikzioan, besteak beste. Aurrerapen bat izan zen erkidegoetako araudia bateratzeko eta arautu egiten zuen zigor jakinak egotea sozietate/enpresa baten pean pertsona fisikoek egiten zituzten delituen egoeretan.

Zigor Kodea berriro ere aldatu zen 1/2015 Lege Organikoaren bidez, eta indarrean da 2015eko uztailaren 1etik. Erreforma berri horrek hobetu egin zuen pertsona juridikoen erantzukizun penala arautzeko teknika, '*beharrezko kontrolaren*' edukia modu egokian mugatzeko helburuarekin. Erantzukizun hori enpresako langileekiko dagoen gainbegiratze-betebeharra modu larrian urratzean datza, zeinak erantzukizun penala funtsatzea ekar bailezake.

Edonola ere, enpresak baldin baditu delituak egitearen arriskua murrizten duen **prebentzio-programa** bat eta hori gainbegiratzeko organo bat -biak ala biak, ezaugarri jakin batzuk izango dituzte-, ez du erantzukizun penalik izango. Gainera, erreformak azpimarratu egiten ditu penalki erantzuleak diren subjektu posibleen kasuan zein delitu zehatzek aktiba ditzaketen erantzukizun penala edo zigorren sistema, gaiarekiko erregulazio osoa ezarrita.

Era berean, 2019ko martxoaren 13an indarrean sartu zen 1/2019 Lege Organikoa, Zigor Kodea aldatu zuena Europar Batasuneko Zuzentzarauen transposizioarako finantza nahiz terrorismoaren alorretan, eta nazioarteko auziak jorratzeko.

2021ean, Zigor Kodea aldatu egin zen honako lege hauek indarrean jartzearen ondorioz: apirilaren 28ko 6/2021 Lege Organikoa, bi inguruabar larrigarri berri sartzen dituena kapitalak zurriztearen deliturako, eta ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa. Azken lege organiko horren bidez, 2011ko abenduaren 13ko 2011/93/EB Zuzentzarauaren 3. artikuluko 2. paragrafotik 4.era bitartekoak, 6. artikulua eta 9. artikulua a), b) eta g) paragrafoak txertatu ziren, adingabeen sexu-abusuen eta sexu-esplotazioaren eta haur-pornografiaren aurkako borrokari buruzkoak, hain zuzen.

Ondoren, 2022ko ekitaldian Zigor Kodea aldatu egin da berriro, honako hauek indarrean jartzearen ondorioz:

- 9/2022 Lege Organikoa, uztailaren 28koa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko edo epaitzeko finantza-informazioa eta bestelako informazioa erabiltzea erraztuko duten arauak ezartzen dituena.
- 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa, zeinaren bidez aurreikusten baita enpresek lan-baldintzak sustatu behar dituztela, sexu-askatasunaren eta laneko osotasun moralaren aurkako delituak eta bestelako jokabideak saihesteko.
- 14/2022 Lege Organikoa, abenduaren 22koa, Europako zuzentzarauen transposizioa eta legeria penala Europar Batasuneko ordenamendura egokitzeko beste xedapen batzuk ezartzen dituena, eta osotasun moralaren, desordena publikoen eta erabilera bikoitzeko armen kontrabandoaren aurkako delituak erreformatzen dituena.

Bere Prebentzio Penalaren Ereduak etengabeko bilakaera izan dezan, CaixaBank-ek lehentasun nagusitzat jotzen du *Compliance* kultura bat sendotzea bere negozio- eta kudeaketa-erabakietan, maila goreneko arau eta erregulazio estandarrekin bat etorriko dena.

Azkenik, 2023ko ekitaldian, Zigor Kodearen beste aldaketa bat argitaratu da, honako hauek indarrean sartzearen ondorioz:

- 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau-urraketei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena.
- 3/2023 Lege Organikoa, martxoaren 28koa, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena, animalien aurkako tratu txarren arloan.
- 4/2023 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, sexu-askatasunaren aurkako delituetan Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, Prozedura Kriminalaren Legea eta Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa aldatzen dituena.

## 1.2 Irismena

Gauzak horrela, funtsezko eginkizuna da kontrol, araudi betearazte eta prebentzio penaleko sistema egokiak berrikustea, CaixaBank-ek nahiz bere Perimetroko filialek gisa honetako egoerak saihestu ditzaten eta antolakuntza-eta kudeaketa-ereduak alderdi nagusi hauek berma ditzan: (i) ekimen- eta kontrol-botere autonomoak dituen organo bat egotea ezarritako prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta betearazpena gainbegiratzeko; (ii) enpresaren jarduerak identifikatzea, esparru horretan egon daitezkeen eta prebenitu beharreko delituetarako (arriskuen mapa); (iii) pertsona juridikoaren borondatea eratzeko prozesua zehazten duten protokoloak edo prozedurak ezartzea, baita erabakiak hartu eta exekutatzeko ere; (iv) baliabide egokien kudeaketa-ereduak martxan jartzea aurrea hartu behar zaien delituak gertatzea saihesteko; (v) prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta betetzea zaintzeaz arduratutako erakundeari arrisku eta ez betetze posiblei buruz berri ematea; (vi) ereduak ezartzen dituen neurriak ez betetzeagatik modu egokian zehatzen duen diziplina-sistema bat ezartzea; eta, (vii) ereduaren eta erakundea aldizka egiaztatzea, kontrol-egituran edo garatutako jardueran.

## 1.3 Helburua

Printzipio Orokor hauen helburuak, nagusiki, hauek dira:

- I. CaixaBank-eko nahiz Perimetroa osatzen duten erakundeetako langile, zuzendari eta administrazio-organotako kideei eta horiekin harremana duten Lotutako Pertsonen helaraztea beren jardura une bakoitzean indarrean diren legedia eta araudian oinarritutako garatzeko eta korporazio-balioen eta bere Kode Etikoan ezarritako jardunbideen sustapen eta defentsarako duten konpromisoa. Era horretan, sendotu egiten dira bere balio etikoak eta berretsi egiten da alor penaleko jardunbideak zorrotz betetzeko borondate sendoa.
- II. Erakundearen Prebentzio Penaleko Eredurako esparru orokor bat ezartzea, araudi-xedapen berrietara egokituta. Ereduak delituak prebenitu, hauteman eta haien aurrean jarduteko neurri sorta bat biltzen du, eta identifikatu egiten ditu ezartzen direnei lotutako arrisku nahiz kontrolak.
- III. Akziodun, bezero, hornitzaile, organo judizial eta gizartearen aurrean oro har bermatu CaixaBank Taldeak bete egiten dituela bere jarduerarako gainbegiratze- eta kontrol-betebeharrak, eta ezarri egiten dituela neurri egokiak delituak prebenitu edo haien arriskua txikitzeko. Ondorioz, beharrezko kontrol legala egiten da administratzaile, zuzendari, langile eta lotutako gainerakoetan.

Horrez gain, CaixaBank-ek honako hauek zehaztu ditu:

- Espainiako Zigor Kodean aurreikusitakoaren arabera Espainiako pertsona juridikoei egotz dakizkiekeen figura penalak. Hain zuzen, honako hauek bereizten dira: lehenik, egiteko arrisku handiagoa izan dezaketen delituak, CaixaBank-ek helburu soziala eta finantza-erakunde gisa gauzatzen duen ohiko jardura –nagusiki, finantzaketa- eta inbertsio-zerbitzuak ematea txikizkako bankaren, korporazioaren, diruzaintzaren eta merkatuen esparruan, bai eta aseguru-negozioan eta Perimetroa osatzen duten gainerako filialetan ere– kontuan hartuta, eta, bigarrenik, gure legeriari jarraituz pertsona juridikoek egin ditzaketen delituei lotuta egoteagatik garrantzi penala izan dezaketen gainerako jokabideak.
- Zigor Kodearen 129. artikuluan delitu osagarritzat jotzen direnak<sup>1</sup> eta ad intra izenekoak<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> Zigor Kodearen 129. artikulua aipatzen ditu nortasun juridikorik ez izateagatik 31. bis artikuluan jasotzen ez diren enpresak, erakundeak, taldeak edo beste edozein motatako erakundeak edo pertsona-taldeak, baldin eta horien barruan, haien laguntzarekin edo horien bitartez, delituak egiten badira, ez zaiela aplikatzen pertsona juridikoen erantzukizun penalaren araubidea, baizik eta delituaren egileari dagokion zigorraren ondorio osagarri bat edo batzuk. Ondorio horiek bat datoz pertsona juridikoaren erantzukizun penalaren kasuan aurreikusitako neurriekin.

<sup>2</sup> CaixaBank Taldeak garatutako jardueren arabera sektore mailan diren arrisku penal garrantzitsuak. Zehazki, administrazio desleiala, bidegabeko jabetzea, dokumentuak faltsutzea eta sozietate-delituak biltzen ditu.

## 2. Aplikazio-eremua

*Compliance* penalari buruzko Korporazio-politikaren Printzipio Orokor hauek (aurrerantzean, "Printzipio Orokorrak") CaixaBank-eko langile, zuzendari eta administrazio-organoetako kideei aplikagarriak zaizkie.

Printzipio Orokor hauek korporazio izaerakoak dira. Ondorioz, zehazten diren jarduketa-printzipioak CaixaBank Taldeko sozietateei aplika daitezke, atal honetan ezarritako zehaztapenei jarraituz. Sozietate horietako gobernu-organoek Printzipio Orokor hauetako xedapenak txertatzeko behar diren erabakiak hartuko dituzte, eta, proportzionaltasun-printzipioari jarraituz, gobernu-esparrua gobernu-organoen, batzordeen eta sailen egituraren jitera egokituko dute, bai eta dokumentu honetan deskribatzen diren jarduera-printzipioetara, metodologietara eta prozesuetara ere.

Txertatze horrek, beste erabaki batzuen artean, filialek Printzipio Orokor propio batzuk onartzea ekar dezake. Onarpena beharrezkoa izango da Printzipio hauetan xedatutakoa euren berezitasunetara egokitu behar duten filialetan, dela gaiarengatik, jurisdikzioagatik edo filialean arriskuak duen garrantziagatik. Filialaren arriskua kontrolatzeko eta kudeatzeko jarduerak zuzenean CaixaBank-etik egiten direnean, dela filialaren arriskuaren materialtasunagatik, dela eraginkortasun-arrazoiengatik nahiz filialak arrisku horren kudeaketa operatiboa CaixaBank-en esternalizatu izan duelako, eragindako filialetako gobernu-organoek Printzipio Orokor korporatibo horien berri izango dute, gutxienez, bai eta filial horiei aplikatzen zaiela ere.

Filialetako gobernu-organoak Printzipio Orokor hauetara atxikiko dira horiek aplikagarriak izanik filialak ez dituen bere printzipio orokor batzuk egiten.

Nolanahi ere, CaixaBank-en betetze-funtzioak, bere izaera korporatiboa dela eta, Printzipio Orokor hauek filialetan proportziosko eran txertatzen direla zainduko du, eta, filialek beren printzipio orokorrek onartzen badituzte, berriz, horiek korporazioaren printzipio orokorrekin lerratuta daudela eta CaixaBank Talde osoarekin koherentzian daudela.

Azkenik, Printzipio Orokor hauek, korporatiboak izateaz gain, CaixaBank Taldearen matrize den CaixaBank erakundearen printzipio orokor indibidualtzat hartuko dira.

Printzipio Orokor hauen ondorioetarako, Perimetroa eratzen dute honako baldintza hauek betetzen dituzten CaixaBank Taldeko erakundeak: CaixaBank-ek du gehiengo partaidetza, kontrola eta irauteko bokazioa; sozietateak egitura jakin bat du; eta, CaixaBank-en jarduerarekin lotura duen jarduera bat garatzen du. Irauteko bokazioaren baldintzatzaileak ez du eraginik izango baldin eta, Perimetroan ez sartzea erabaki zuenetik bi urte igaro ondoren, filial batek Taldeko kide izaten jarraitzen badu.

Era berean, **Perimetroko enpresen barruan** bi filial mota bereizten dira:

- **Filial esanguratsuak:** Taldearen barruan duten kritikotasunagatik edo Espainiako eta Europako banku-erregulazioaren erregulazio gehigarriaren mende egotearen ondorioz berariazko errekerimenduak egoteagatik Araudia Betetzeko funtzio propioa dutenak.
- **Gainerako Perimetroa:** Araudia Betetzeko unitate propiorik ez duten filialak, ez daudelako banku-arauketaren erregulazio gehigarriaren mende edo garatutako jardueraren ondorioz betetze-arriskua txikiagoa delako.

Konplexutasun-mailaren arabera, Korporazioaren Zigor Kudeaketaren Batzordeak horren berri emateko hainbat aldizkakotasun ezarriko ditu Perimetroa osatzen duten filialen artean.

Perimetroko filialek beren mendeko filialetan zigor-arloko prebentzio-eredu korporatiboa ezartzen dela gainbegiratu eta koordinatu beharko dute.

Taldeko enpresak, gutxienez, urtean behin berrikusiko dira Perimetroko partaide izateko irizpideak une bakoitzean betetzen dituztela egiaztatzeko.

Era berean, Printzipio Orokor hauen 4. atala aplikagarria izango da<sup>3</sup> CaixaBank-i Lotutako Pertsoneri, bereziki, Erakundearen izenean edota kontura aritzen diren bitartekari eta agenteak barne direla, baldin eta egoera zehatzak hala onartzen badu, legea betetzen dela eta beharrezko eginbidearekin jokatzeko dela bermatzeko.

Printzipio Orokor hauek ez dituzte aldatzen CaixaBank-en filialen eta beren langileen arteko lan-harremanak, eta ez da ere interpretatuko aldi baterako lan-kontratu edo enplegu-promesa gisa.

---

<sup>3</sup> CaixaBank-ekin edo Perimetroko edozein filialekin edozein motako negozio-harremanak dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Tartean daude, besteak beste: aldi baterako enpresen edo hitzarmen akademikoen bidez zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonak, bitartekariak, agenteak, artekariak, kanpo aholkulariak edo ondasunak edo zerbitzuak emateko kontratatutako pertsona fisiko edo juridikoak.

### 3. Arau-esparrua. Araudi eta estandar aplikagarriak

Printzipio Orokor hauek aplikagarria den indarreko araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira, baita hura ordezten edo aldatzen duenaren arabera ere. Zehazki, hauxe da horiek egin diren datan CaixaBank-i aplikagarria den indarreko araudia:

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa, eta ondorengo aldaketak
- 1/2011 Zirkularra, ekainaren 1ekoa, Estatuko Fiskaltza Nagusiarena, Zigor Kodearen 5/2010 Lege Organikoaren bidez egindako erreformaren arabera pertsona juridikoen erantzukizun penalari buruzkoa
- 31/2014 Legea, abenduaren 3koa, gobernu korporatiboa hobetzeko Kapital Sozietateei buruzko Legea aldatzen duena
- 1/2016 Zirkularra, urtarrilaren 22koa, Estatuko Fiskaltza Nagusiarena, 1/2015 Lege Organikoaren bidez egindako Zigor Kodearen erreformaren arabera pertsona juridikoen erantzukizun penalari buruzkoa
- 2019/1937 (EB) Zuzentaraua, 2019ko urriaren 23koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Europar Batasuneko Zuzenbidearen urraketei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa
- Atzerriko Praktika Ustelen Legea (FCPA – 1977)
- ELGaren eroskeriaren aurkako Konbentzioa (1997)
- Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmena (2003)
- Nazioarteko Gardentasun Eroskeriari Aurre Egiteko Enpresa Printzipioak (2003)
- Ustelkeriari aurre egiteko *International Chamber of Commerce* erakundearen arauak (2005)
- *UK Bribery Act* (2010)

Horrez gain, erantzukizun penalaren arloko nazioko eta nazioarteko beste estandar batzuk ere kontuan hartzen dira, hala nola:

- *Complianceren* kudeaketa-sistemei buruzko ISO 19600 Araua (Gida)
- Eroskeriaren aurkako kudeaketa-sistemei buruzko ISO 37001 Araua
- *Compliance* penalaren kudeaketa-sistemei buruzko 19601 UNE Araua
- *Zerga Complianceren* kudeaketa-sistemei buruzko 19602 UNE Araua
- *Complianceren* kudeaketa-sistemei buruzko ISO 37301 Araua
- Salaketa Kanalei buruzko ISO 37002 Araua

Atzerriko jurisdikzioen edo sektore-araudi osagarrien arabera filialen kasuan, filial horien politikek eta prozedurek kontuan hartuko dituzte, euren araudi propioaz gain, arestian aipatutako araudian dauden betebeharrak, ez baldin badira dagokion jurisdikzioaren edo sektore-araudien eskakizun espezifikoaren aurkakoak.

#### 4. Arrisku penalaren kudeaketaren printzipio orokorrak

Printzipio Orokor hauek, eta, ondorioz, Prebentzio Penaleko Eredua arautzen duten printzipioak hauek dira:

- i. Indarrean dagoen legediaren, Kode Etikoaren, aplikatu beharreko jokabide-arauen eta gainerako barne-araudien arabera jardutea.
- ii. Prebentzio-kultura sustatzea eta ekintza ilegalik edo iruzurrezkorik ez onartzea, baita etika eta jokabide arduratsuko printzipioen aplikazioa sustatzea ere.
- iii. Kontrol-sistema eraginkor, iraunkor eta eguneratuak bermatzea une oro.
- iv. CaixaBank-en nahiz Perimetroko filialetan egiten diren jarduerak eta hartzen diren erabakiak horretarako ezarritako barne-araudi, prozedura eta protokoloen eta dagozkien kontrolei jarraitzen dietela ikuskatzea. Elkartutako Pertsonen kasuan, jarduera eta erabaki horiek izango dira dagokion zerbitzuaren aurkezpen-esparruan kontratu bidez daudenak.
- v. Printzipio Orokor hauek aplikatzeko beharrezko baliabide eta bitartekoak bermatu, delitu posibleak prebenitu eta hautemateko.
- vi. Egokiak eta proportzionalak diren prestakuntza-jarduerak antolatu, aldizkakotasun nahikoarekin, ezagutzari buruz eguneratuta egoteko eta enpresa-etikako kultura eta legea betetzeko derrigortasuna garatzeko.
- vii. Printzipio Orokor hauen aplikazio-eremuan dauden pertsona fisiko nahiz juridikoen erantzukizuna helarazi ikuspegi penaletik ilegalak diren jokabideak arretaz aztertzeke asmoz. Langile edo lan-taldeetako kideak dituztenak bereziki saiatuko dira ekintza ilegal penalak prebenitzen, eta bermatu egingo dute ahalik eta bizkorren eta presaz errekurtsua jarriko dietela dagozkien organo eta prozesuei, hauteman bezain laster.
- viii. Printzipio Orokor hauen eremuan dauden pertsona fisiko nahiz juridikoen betebeharra helarazi, edozein delitu, iruzur edo irregulartasun edo hura izan daitekeena jakinaraz dezaten.
- ix. Une oro betetze-kultura sustatzea, informatzailearen beharrezko konfidentzialtasun eta babes bermeak izanda izaera penaleko arrisku edota irregulartasun posibleak jakinaraztea errazteko, horretarako ezarritako barne kanalen bidez.
- x. Ahalik eta bizkorren ustez delituak diren gertaerak ikertzea, ikerketan parte hartzen duten pertsona ooren eskubideak bermatuz beti.
- xi. Hitzarmen Kolektiboan, Langileen Estatutuan eta gainerako araudi aplikagarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz aplikagarria den barne- eta lege-araudian ezarritakoa erakunde barruan ez betetzeagatik den diziiplina-araubidea ezagutzea.



## 5. Prebentzio Penaleko Eredua

Horrenbestez, funtsezkoa da delituak prebenitzeko antolakuntza- eta kudeaketa-eredu bat dagoela ziurtatzea, kontrol, araudi betearazte eta prebentzio penaleko sistema egokiekin, sozietateek mota horretako urraketarik ez dutela egiten prebenitzeko eta saihesteko.

Eredu honek elementu nagusizat hartzen ditu honako hauek:

- i. Ekimen- eta kontrol-botere autonomoak dituen organo bat, ezarritako prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta betearazpena ikuskatzeko. Printzipio Orokor hauen ondorioetarako, CaixaBank-en eta Perimetroa eratzen duten filialetan funtzio horiek Korporazioko Kudeaketa Penalaren Batzordeari esleitzen zaizkio;
- ii. CaixaBank-en eta Perimetroko filialen jarduerak identifikatzea, esparru horretan egon daitezkeen eta prebenitu beharreko delituetarako;
- iii. Pertsona juridikoaren borondatea eratzeko prozesua zehazten duten antolakuntza-neurri eta prozedurak ezartzea, baita horiek buruz erabakiak hartu eta exekutatzeko ere;
- iv. Jarduera-lerroak, egon daitezkeen edozein interes-gatazkarako;
- v. Baliabide egokiak prebenitu daitezkeen delituak gertatzea saihesteko;
- vi. Prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta betetzea zaintzeaz arduratutako erakundeari arrisku eta ez betetze posiblei buruz berri ematera;
- vii. Legez kanpoko jarduera posible penalak hauteman eta komunikatzeko barne informazioko kanal bat izatea;
- viii. Diziplina-erregimen bat egotea barneko ez betetzeen aurrean erabiltzeko, barne araudiaren eta araudi legalaren arabera; eta,
- ix. Ereduaren aldizkako egiaztapena eta aldaketa, mantentzeak hala behar duenean, edo antolakuntzan, kontrol-egituran edo jardueran aldaketak egotean.

Ereduak bost (5) fase bereizi ditu:

1. Prebentzio-fasea: CaixaBank-i eta bere Perimetroko filialei eragiten dieten jokabide penalak identifikatzea, eta arloari aplikagarriak zaizkion kontrolak daudela zehaztea.
2. Hautemate-fasea: ekintza ilegal posibleak hautematea hainbat kanal eta bitartekoren bidez.
3. Erantzun-fasea: Korporazioaren Kudeaketa Penaleko Batzordea arituko da CaixaBank-en edo bere Perimetroa eratzen duen filialetako batean delitu baten aztarnak edo susmoa dagoenean, eta sor ditzakeen kalteak -ahal den neurrian- murriztea.
4. Jakinarazte-fasea: CaixaBank-eko eta, hala badagokio, bere Perimetroa eratzen duten filialetako gobernu-nahiz zuzendaritza-organoei aldizka komunikatu eta jakinaraztea.
5. Monitorizazio-fasea: Ereduaren aldizkako ebaluazioa eta CaixaBank-en nahiz bere Perimetroko filialen inguruabarretara egokitzea, bai eta pertsona juridikoen arrisku penalen prebentzioaren arloko eskakizunen bilakaerara egokitzea ere, bilakaera legalaren, jurisprudenzialaren eta doktrinalaren arabera. Ereduaren aldizkako ebaluaziorako, auditoretzak egingo dira gutxienez hiru urtez behin, eta barnekoak nahiz kanpokoak izango dira.